

#udaltop16



udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**

ETORPARRI,
EUSKARAREN
UNIBERTSORA
HURBILTZEKO
BIDEA

www.udaltop.eus

ARITZ LILI LEKANDA,
AIARALDEA KOOPERATIVA
FELIX MUGURUTZA MONTALBAN,
LAUDIOKO UDALA



AURKIBIDEA

NONDIK GATOZ?	3
1. PROIEKTUAREN AZALPENA	4
1.1. Saio Teorikoa	5
1.2. Saio Praktikoa	5
1.3. Hurrengo saiorako Hiztegia	5
2. PROIEKTUAREN GEHIGARRIAK	6
3. ARRAKASTAREN OINARRIAK	6
4. ZAILTASUNAK	7
5. EMANDAKO HURRENGO PAUSUAK	8

NONDIK GATOZ?

Duela 42 urte Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Legea onartu zenean uste izan genuen irakaskuntzaren eta Administrazioaren bitartez, Audio euskaldun bat lortuko genuela epe ertainean. Baina gauzak ez dira hain errazak izan eta lorpen handiak egin badira ere, badugu hainbat zeregin oraindik.

Laudio gure herriak, industrializazioaren eskutik, milaka immigrante eskuratu zituen 50-60n hamarkadetan. Baina ez zuen eragin linguistikorik izan euskara galdua genuelako jada eta, 80-90 hamarkadetan haiek eta euren seme-alabak euskara berreskuratzearen partaide aktiboak izan ziren.

Aitzitik, kudeatzeko zailagoa izaten ari zaigu azken hamarkadetako immigrazioa, gehien bat Europatik kanpokoa, euskararen sisteman egokitzeko.

Etorri berriak txikiak direnean ez dago arazo handiegirik, teoriarik, Lehen Hezkuntzako sistemak nola edo hala euskalduntzen dituelako, Audioko bertoko hainbat umerekin gertatzen den bezalaxe. Berdin 16 urtetik gorakoekin, euskaltegiara jotzeko aukera dutelako, Udalak matrikulazioa bere osotasunean finantzatuta.

Baina gure herrira datozen ez euskaldun horiek nerabe-gazteak direnean, hau da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan integratu behar direnean, oztopo bat dago ez dutelako euskara ezagutzen eta, adinagatik, ez dutelako euskalduntzeko beste aukerarik. Baina, aldi berean, DBH ikasketak D ereduan egin behar dituzte, erabat arrotz suertatzen zaien hizkuntza batez. Irakasleentzat ere nahasgarria da egoera une oro hizkuntza jausiak egiten egon behar dutelako, nahitaez.

Hor, bistan denez, sistemaren desdoitze bat dago, agerikoa, eta konpondu beharreko gabezia: lortu ezin dezaketen zerbait exijitzen diegulako gazte horiei.

Zailtasun hauen aurrean eskolek ahal dituzten oreka jolasak egiten dituzte haur eta nerabe hauekin. IPI bezalako laguntza izaten dituzte, nerabe hauek euskalduntzeko. Errealitateak ordea erakusten du ez dela nahikoa.

Gainera, euskara ez bereganatzea edo hala nola jasotzea, hau da euskaraz bizitzeko gaitasuna ez izatea ekartzen du, irakaslea eta irakasgaia ondo ez ulertzea. Horrek, ikasgaia jarraitzeko zailtasun handiak ekartzen dizkio nerabeari eta klasearekiko desinteresa pizteko arrazoi handi bat da. Hau da, hizkuntzaren gaitasunak eta klaseekiko desinteresak eta beraz, eskola-porrota bat egiten zutela ziklo zital batean.

Ziklo hau noski areagotzen da, etorri berri hauek nagusitan etortzen baldin badira. Hau da, etorri berriak, DBH ikasteko adinetara etortzen direnean oso zaila zaie euskara bereganatzea derrigorrezko hezkuntza iraun bitartean.

Horrekin kezkatuta, DBH eskaintzen duten hiru zentroetako ordezkariak eta Udala elkartu ginen, Aiaraldea Kooperatibako Aritzekin, egitasmu bat zutelako egiteko moduan. Eta horrela hasi ginen: ikasleentzako erritmo eroso eta erakargarriak, ez oso eduki akademikoak eta, euskara ez ezik, euskararen inguruko kultura eta identitatea ere landuko zuena.

Eta horrela hasi zen proiektuaren ibilbidea, 2020an, modu erabat probisionalean, eta zutik eusteko kezka nagusiarekin. Ondoko urteetan ere horrela mantendu zen eta, ikusita zein balorazio onak zituen, lizitatu egin genuen 2022-23 ikasturtean hasi eta, lau urtez, 2026-27 ikasturtera arte.

Bestalde, ikusita zein harrera ona duen, aurten LHra ere eramatea pentsatu dugu, errefortzu moduan, eta... ibili badabil. Azkenik, ETORPARRI izena hartu izan dugu Azkuek bere hiztegi famatuan jasoa duelako hitz hori gure eskualdean, izendatzeko "beste herri batetik etorritakoak".

1. PROIEKTUAREN AZALPENA

Proiektuak entzumenari eta ahazkotasunari ematen dio garrantzia. Hau da bi lerro hauetan oinarritzen da. Ez dio garrantzirik ematen ez idazmenari ez eta zuzentasunari ere. Ulertzen da zuzentasuna datorrela behin hizkuntzaren jabe denean pertsona bat. Hori dela eta, saioan zehar ez gara zentratzen nerabeak zuzentzera.

Ulertzen dugu, bai idazmena zein zuzentasuna eskolaren ardura dela. Hau da hasieran, hizkuntza ulertu behar dutela, hitz-egiteko gaitasuna izan eta gero etorriko dela ortografia eta gramatika ondo lantzea.

Gainera, ikusten dugu, zuzentasunari garrantzia ematen badiogu eta hitz egiten duten bakoitzean zuzendu ezker, nekatu egingo direla eta hizkuntza gogaitzeko aukerak izan ditzaketela. Saioen helburua, euskarak herrira harrera egitea da. Horregatik saioen dinamika egunerokotasunean erabilgarri izan ditzaketen kontzeptuak lantzean datza. Baita, herriko komertzio zein gunek ezagutzean.

Horregatik saio batzuetan, espazioen eskaerak egiten dira kultur etxeko arduradunekin, erosketak egiten dira herriko komertzioetan, herriak dituen gunek ezberdinak ezagutzen dira, herriko elkarte batzuekin harremana egiten dute...

Guzti hau, euskaraz dela bermatzeko aurretik, komertzioak, elkarteak zein bestelako arduradunak abisatzen dira, euskarari eusteko etorriko zaizkien pertsona hauekin. Noski hau guztia, hezitzaile baten laguntzarekin egiten da eta berak eskaintzen die beharrezko laguntza.

Ordu eta erdiko saio bat egiten da astean nerabeekin. Gure kasuan asteazkenak adostu genituen eskola eta gazteen artean, egokien etortzen zitzaaien ordutegia baitzen.

Saioak Laudioko institutuan abiatzen ditugu, baina herriko espazio ezberdinak erabiltzen dira. Saio guztiak hezitzaile batek dinamizatzen ditu. Bera da, saioen dinamika aurrera ateratzen duena eta saioak prestatzen dituena.

Saioa 3 ataletan banatzen dugu:

- Aurreko saioaren hiztegiaren errepassoa 15'
- Eguneko saio teorikoa 30'
- Eguneko saio praktikoa 45'

1.1. Saio Teorikoa

Saio teorikoan batez ere gero saio praktikoan erabiliko den hiztegiaren errebasoa egiten da. Teorikoa den arren, ahalik eta gozagarrien eta dinamikoen egiten saiatzen gara. Hau da, hiztegia jolas batzuekin zein fitxa batzuekin landu egiten dugu.

Saio teoriko hauek erabiltzen ditugu gero egingo dugun praktika lantzeko eta azaltzeko.

1.2. Saio Praktikoa

Saio praktikoa jolasean oinarritzen da. Beraiei gustatzen zaizkien gauzetan. Hasierako saioetan galdetzen zaie ea zer interes duten eta interes hauen arabera zentratzen da egitasmoa. Hau da futbola interesatzen bazaie, futbolean euskaraz zelan jolasten den praktikatzen dugu, sukaldaritzaren gustuko badute sukaldatu egiten dugu, jakien izenak euskaraz ikasiz.

Saio praktikoaren arrakasta, beraiek eskatzen dutenaren arabera egiten direla da.

1.3. Hurrengo saiorako Hiztegia

Egunaren lehen partean beti errebasatzen dira, aurretik landutako hitzak. Modu horretan hezitzaileak ikusi egiten du ea zer indartu behar duen.

Askotan ekintzak errepikatu egin behar dira, kontzeptuak behar bezala bereganatzeko bereganatzeko.

2. PROIEKTUAREN GEHIGARRIAK

Hasieratik ikusi zen, proiektu honek, etorri berriak ziren nerabeei laguntza ikaragarria ematen zien arren, ez zela nahikoa eta horregatik hasieratik beste ekimen batekin indartu zen proiektua. Laudioko institutuko Guraso Elkarreak bazuen honetan inbertitzeko nahia eta diru bat eta beraiek finantzatu zuten proiektu gehigarri hau.

Gazte etorri berriekin udan, egonaldiak egin dira gazte etorri berriekin. Hasierako urtean, 2020an, ez zen gaua pasatzeko egonaldirik egin Covid19a dela eta. Baina udan proiektu berezi bat egin zen gazte hauekin, irteera batzuk eta kaleko ekintza batzuk elkarrekin eginez. Hurrengo urteetan etorri berriak diren gazte hauekin bi eguneko egonaldi bat egin zen. Egonaldiaren helburua, 2 eguneko euskara hutsez bizitzea da. Hau da, hizkuntza erabilgarria izan ahal dela ikustea. Euskarara bi egunetako murgiltze sakon bat egitea alegia. Oso balorazio positiboa egin dute beti gazteek proiektu honetaz. 2023an ez genuen egiterik izan, finantziario faltagatik.

Hasierako bi gabonetan ere, Laudioko Institutuak finantziatuta, bi ikastaro trinko landu genituen, maila altuago nahi zuten ikasleei teoria gehiago emateko. Saio hauek beraz dinamikoak eta ludikoak izan ziren arren, ez ziren hain zentratuak egon praktikan baizik eta teoriarik. Gazteei ere esan zitzaie horrela izango zela eta gazte gutxiago etorri ziren arren etorritakoak oso gustura egon ziren. Baloratu zuten beharrezkoa zela horrelako saio teorikoagoak euskara bereganatzeko.

3. ARRAKASTAREN OINARRIAK

Arrakastaren oinarri sendoa eskolen inplikazioan egon da. Eskolak hasieratik oso inplikatuak egon dira proiektuan eta horrek ekarri du saio guztietan taldea biltzea eta jarraipena egin ahal izatea.

Saioa, ikas orduetatik, kanpo egin den arren, gazteek oso argi ikusi dute proiektua eskolekin batera garatu egin dela eta bateratasun horrek indarra eman dio proiektuari. Eskolak, saioa zegoen bakoitzean, gazteei gogorarazten diete saioa dagoela eta beraien onerako dela.

Gainera, nerabe hauen gurasoekin ere harremana egiten da. Eskolek egiten dute harreman hau, beraiekin jarraipena eginez eta proiektua ondo azalduz. Familiekin gainera, urtean zehar bi bilera behintzat egiten dira proiektuaz hitz egiteko eta ikasitakoa familiekin lantzeko. Familiei, inplikazioa eskatzen zaie eta proiektua beharrezkoa zaiela ulertzen dute.

Beraz hirukote sendoa osatzen dute proiektua berak, eskolek eta familiekin. Hirukote hau sendo jarraitzea, proiektuaren arrakasta bermatuko du.

4. ZAILTASUNAK

Ez da erraza izan gazteak beraien denbora librean, hau da ikas orduetatik kanpo, euskara ikastera erakartzea. Tailerraren dinamikagatik erakarriak izan diren arren, zailtasunak izan ditugu egunero talde guztia etortzeko.

Batetik, bi erritmo oso ezberdinekin topatu gara proiektuan. Bi perfil oso ezberdin topatu ditugu saioetan. Bazegoen jende bat euskaraz bazekiela zerbait, hau da, denbora bat bazeramala herrian eta beste perfil bat Euskal Herrira etorri berri berriak zirenak. Bi perfil hauen beharretara doitzea oso zaila izan da.

Bestetik, bi interes maila ezberdin ere izan ditugu. Badaude gazte batzuk, beraien hezkuntza prosezuan aurrera egin nahi zutela eta maila handiagoa eskatzen ziotena hezitzaileari. Beste batzuk ordea zentratuagoak egon dira hitz jakin batzuk jakitera eta ez irakasgaiak gainditzeko hizkuntza kompetentziak bereganatzera. Hau da, ikasle batzuk teoria gehiago eskatu digute, teorikoki saioak indartsuago egitea. Aldiz beste batzuk praktikoagoak egitea eskatu digutu.

Bi perfil hauek bateratzea zaila izan den arren, lehen esan bezala saioa bi ataletan bereiztea erabaki genuen. Alde batetik arlo praktikoa lantzen genuen eta bestetik arlo teorikoa. Azkenik, borrokatu behar izan dugu "euskarak ez du ezertarako balio" dinamikarekin. Hau da nerabeek gure eskualdean erabilgarritasun gutxi ikusten diote euskarari. Gazteleraz bizi daitezke arazo gabe, eta hau bihurtzen da hizkuntza komuna.

5. EMANDAKO HURRENGO PAUSUAK

Bigarren hezkuntzan dauden nerabe etorri berrien proiektuak arrakasta izan duela ikusita. Laudioko udalak hau indartzea erabaki zuen. Aiaraldea Ekintzen Faktoriarekin harremanetan jarri zen eta proiektua ea Lehen Hezkuntzara hedagarria zen baloratu zuten.

Udalak bere kabuz proiektua egin aurretik, Lehen Hezkuntza duten, Laudioko eskola guztiekin harremanetan jarri ginen. Laudio Ikastola, La Milagrosa ikastetxea, Lamuza ikastetxea, Latorro ikastetxea eta Aretako eskola (3 publiko eta bi kontzertatu). Eskolei galdetu zitzaien ea horrelako proiektu baten beharra ikusten zuten Lehen Hezkuntzan eta zer nolako beharraz ari ginen. Hau da galdetu genien, ea zenbat ikasle egon ahal ziren horrelako zerbitzu bat behar zutenak. Eskolei esan zitzaien, proiektu honetara etortzekoak zirela euskaraz ez zekiten haurrak, hau da, euskarara etorri berriak ziren haurrak. Ezin genituela hartu jaiotzetik euskara jaso duten haurrak, baina ondo menperatzen ez zutenak. Hau da, proiektua oinarrizkoa zela eta ez jadanik bazekitenak.

Eskolek begi onez hartu zuten proiektua eta lanean hasi ziren. Hasierako begiradan, haur askok behar zutela ikusi genuen. Hau da 30 haur baino gehiago identifikatu zituzten Lehen Hezkuntzan horrelako proiektu bat behar zutela.

Datuak ikusita, Laudioko udalak eta Aiaraldea Ekintzen Faktoriak erabaki genuen Lehen Hezkuntzako bigarren zikloarekin hastea aurten eta hurrengo ikasturtean baloratzea ea proiektua handitu behar zen. Hala Lehen Hezkuntzako 4. Mailatik 6. Mailara zeuden ikasleekin hasi gara martxan aurten. Guztira 18 haurrek parte hartzen dute proiektuan.

Aurtengo ikasturtea proiektuaren beharra identifikatzeko erabiliko dugu eta horregatik behar handiena izan dezaketen adinetan lantzea erabaki dugu. Bai eskolek zein guk ere argi ikusten dugulako lehen Hezkuntzako lehen ziklora etortzen diren haurrek, aukera gehiago dituztela hizkuntza bereganatzeko.

Eskolekin batera aztertuko da, ea lehen hezkuntzako lehen ziklorako zein behar dagoen eta zein proiektu den interesgarriena.

Azkenik, aipatu behar dugu eskola/instituto guztiak poz pozik daudela horrelako zerbitzu bat martxan jartzeagatik. Baina, oraindik nahikoa ez dela ondorioztatzen dute. Hau da, baliabide gehiago eta proiektu gehiago jarri behar direla martxan haur eta nerabeak euskarara hurbiltzeko.

Laudion, jarraituko dugu eskolak entzuten eta beharrei erantzun nahian.

udal**top**

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**

www.udaltop.eus